

Borges euskaraz

Jon Alonso

"Ipuin hautatuak"
Jorge Luis Borges
Euskaratzailea: Juan Garzia
Ibaizabal, 1999

Ez da lan makala, gero, Euskadi Saria eraman ez ezik, Itzulist itzultzaile jendea biltzen duen zerrendako heroiaren lana kritikatzeko jartzea. Horregatik, hasi baino lehen esango dut Borgesek *Ipuin hautatuak*-en itzulpena, orokorrean, oso ona iruditu zaidala. Eta horrekin dena esanda dago. Kontu batzuk gaineratu beharko ditut, hala ere, neure burua justifikatzeko baino ez bada ere.

Lehen kontua da ohartaraztea oraindik ere badabilela hortik zehar hainbat jende, franko gainera, Borges jatorrizko hizkuntzan irakurtzen ahal dugunez (euskaldun gehienok), "Borges euskaraz zertarako" galdetzen duena. Arduragabekeria handiaren seinale ote den, edo norberaren gaitasun eza edo nagikeria ezkutatzeko argudioa ote den, ez jakin nik. Borgesek gazteleraz eskaintzen duen eredia eta prosa moldea gaizki etorriko al zaigu, ba? Itzulisten irakurria izango da, agian, baina oso oker ez banago, norberaren diskurtsoa besteren ekarriaz osatzen, mamitzen, aberasten, elikatzen da; hori hala bada, ez al zaigu mende honetako idazle nabarmen eta handiaren erreferentzia —euskaraz— interesatzen? Alferrik da honetaz gehiago jardutea.

Kritika hau egiteko, Garziak euskaratu duen liburua irakurri ez ezik, nire Borgeszaletasunaren ikur diren ipuinetako batzuen —hiru, zehatz esateko: *Traidorearen eta heroiaren gaia*, *Banatu doazen bidexken jardina* eta *Hegoaldea*— jatorrizko eta euskaratutako bertsiok eta arkatza ere eskuan ditudala ibili naiz. Lan hori eginda, nire ondorioak hauek dira. Lehena, itzulpenaren bertuterik onena dela Garziak lortu duela Borgesek prosaren estiloaren mailako euskal prosa, gaur egun hau posible den neurrian; itzulpenak, uneoro, gazteleraz ezagutzen dugun Borgesek oihartzuna dakar. Horregatik esan dut hasieran itzulpen ona dela, hain zuzen ere.

Larderiakoa

Niri Borgesek prosa beti iruditu zait dirdaitsua, eruditoa, ezinago betea, zirrikiturik gabea, dotorea. Eta larderiakoa. Larderiakoa esaten dudala zer esan nahi duen zehaztuko dut: Borgesek esaten duelarik, hainbatgarren orrian, "Ez ulertua izateko modu bat da loria, menturaz okerrena", edo eta "Ryan-ek susmoa du etorkizunean norbaitek egia atzeman zezan tartekatu zituela egileak" (Shakespearengandik harturiko pasarteak), irakurleak loria ez ulertua izateko modurik okerrena dela eta pasarteok egileak norbaitek egia atzeman zezan tartekatu zituela sinetsi beste erremediorik ez duela. Garziaren Borgesek Borges da, alegia.

Besterik da itzultzaileak nola jokatu duen hori lortzeko. Aitortuko dut hasierako irakurketa-alderaketa axalekoan despistatu nintzela. Hau da, lerro gutxiren buruan "hezetasuna" eta "ezkotasuna" ikustea gaztelerazko jatorrizko "humedad" bakarraren ordean, euskaraz ohikoa ez den "damaigu" bat jatorrizkoan guztiz arrunta den esaldi batean... eta

holako batzuk topatzeak apur bat harritu ninduen. Azterketa arretatsuagoak konbentzitu nau itzultzaileak arrazoiak dituela horrelakoak egiteko, batzuetan egiten duen bezala. Hau da, itzulpena orpoz orpo jarraitzen zaio jatorrizkoari hamarretatik bederatzian; baina hondar batean nolabaiteko mekanismo konpensatzailea ageri da. Eta hortaz, batzuetan "antzemangaitzago" soil bat da "inextricables y heterogéneos"en itzulpena, "morrosko"k balio du "muchachote" eta "compadrito"ren ordeztu... Baina horrelakoetan egon litekeen galera edo maila-jaistera beste hainbatetan konpensatzen da, perifrasi jori erabiliz edo adizkiak dotore jokatuz ("liburu bat zeinean azken orrialdea lehendabizikoaren berdina lizen" "un volumen cuya última página fuera idéntica a la primera"ren ordeztu, "sinólogo izatera iristeko ahalegina saiatu aurretik" "antes de aspirar a sinólogo"-ren ordeztu...). Garziak bere buruari aitortzen dion askatasun mailak ez du testuaren oreka apurtzen, ez du inoiz zuhurtziak agintzen duena gainditzen; eta, aitzitik, esan daiteke testuak, nahibezelakotasun puntu onargarri horrekin, irabazi egiten duela, interpretazio hertsiegi batek gainera liezaiokeen zurruntasunetik askatuz eta elkortasuna saihestuz; bestalde, interpretazio estuegiak emango ez liokeen aberastasuna lortzen laguntzeko ahaleginean, ez dira gutxi Juan Garziak eskaintzen dituen aurkikuntzak, bai testuaren berrantolaketa sintaktikoan (inoiz ere oso bortxatua ematen ez duena, bestalde, eta askotxotan dotore gelditzen dena: "gizon hori, ordea, estatua bat bezalako gogorra zen", "...mundua deus ez litzaiokeen jainko halako bat irudi...") baita lexikoan ere ("hondabera", "bihozbera", "oharkabezia", "alboirudi"...).

Hainbeste bertuteren ondoan, hiru ipuinotan, nire ustez interpretazioaren aldetik zalantzazkoa iruditu zaidan esaldi bat eta itzultzaileak jan-ahaztu duen beste bat ("lo imaginé inviolado y perfecto en la cumbre secreta de una montaña") baizik ez dut aurkitu, alderdi negatiboan.

Gustuz, sen literarioz eta baliabide linguistiko zein tekniko ugariz egindako itzulpena, beraz.

Euskaldunon Egunkaria, 2000-01-22